



zanbuia!

METROKOADROKA SORMEN LABORATEGIA



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

METROKOADROKA SORMEN LABORATEGIA

zanbuia!

Eako poesia egunak, 2018

Eako Poesia Egunak urte luzez bizipenen eskola bat izan dira guretzat. Oholtza bat, elkargune bat, gauaren pare eretzeko moduko parentesi eder bat, ukigarria den utopia zabal eta erreal bat. Eako Poesia Egunetan taularatu ahal izan ditugu "Munduan beste" eta "Zanbuia!" bezalako lan kolektiboak, antolatzaileekin batera elkarlan estuan, ia intimoan.

Esker oneko hitzak baino ez ditugu Eako Poesia Egunak posible egin dituzten lagunentzat, maitasunez beteriko hitzak: liburu hau haiei eskainia da.

Metrokoadroka

AURKIBIDEA

Inbidia kolektiboa

Azalpena

Gidoia eta argazkiak

Zanbuia!-ren gaineko kronikak

Inbidia kolektiboa

“Gogoratzen egun hura, Eako Poesia Egunetan...?”. Guk bai, guk gogoan iltzatuta daramagu.

2018ko uztailaren 13a zen. Ostirala. Iluntzerako iritsi ginen harrizko zubien herrira. Uda giro sargoriak hala eskatuta, zerbeza fresko bana hartzen ari ginen lurrean zabal eserita, urrutira lehen oihuak aditu genituen unean. Lagun talde bat bistaratu genuen frontoi aldean; gorputz multzo lauso bat, zein baino zein mugimendu eta hots arraragoak egiten. Deformatzen.

Astebete zeramaten han. Hutsetik zerbait sortzen. Hamalau sortzailek batera. Elkarrekin. Hutsetik baino norberarengandik. Elkarrengandik. Herritarrek herriari eta inguruari buruz kontatutakotik, herriko hormek isildutakotik, lurzoruak iradokitakotik... Astebete zeramaten kresal usainezko parentesi baten barruan. Astebete aire libreko giza laborategi hartan.

Mugimendu haiek harrapatuta, talde lanaz jardun genuen luze hizketan goizaldeko ordu txikiak arte. Taldeaz. Eta lanaz. Kolektiboan sortzeak dakartzan ajeez, utzi ditzakeen nekeez, suertatu daitezkeen gatazkez eta gatazka hauen kudeaketaz... Zure ideiak defendatu ahala amore ematen ikasteaz... Oro har, ikasteaz. Eta plazeraz. Eta konpromisoaz. Eta zaintzaz. Eta betetasunaz. Eta harrotasun kolektiboaz.

Biharamunean itsasoak kilimak egin zizkigun betileetan. Eguna eguzkipean igaro eta behin arratsaldea iritsita, larruazaleko ile guztiak hormatu zitzaizkigun aurreko eguneko gorputz haiek igande pausoz itsasotik irteten ikusi genituenean. Arrantzarako sarea burutik behera zeraman batek. Guztiei itsasten zitzaien arropa blaitua gorputzera. Eta gu ere beraiengana itsatsi ginen segituan. Ahalik eta gertuen, ahalik eta itsatsien. Adi jarraitu genien aurretiaz ere magikotzat genuen herriko txokoetan barrena. Harik eta magia gehiagoz jantzi zuten arte.

Emakume bat ikusi genuen zubitik zintzilikatuta. Beste bat leiho batean itsas maskor baten barrenetik orroka. Beste bat begiztatu genuen portuan. Gogoan dauzkagu bere gorputzaren dardarak, astinaldi bortitzak. Gogoan daukagu zer sentitu genuen behin obra bukatuta portutik behera jauzika ikusi genituenean ere. Marea bizi-biziak barrenean. Beraiekin batera “Zanbuia!” oihu egin eta itsasora salto egiteko gogoia, gertarazi zutenaren parte izaten uzteagatik eskerrak emateko gogoia. Eta inbidia. Inbidia kolektiboa.

Oroitzapen batzuek ez dute desagertu nahi. Eta ez dute zertan desagertu.

Non hasten da amaiera bat? Non amaitu hasiera bat? Zer gertatuko litzateke amaiera oro zerbaiten hasiera balitz, eta hasiera oro amaiera bat.

Nola idazten zaio hasiera bat amaiera bati?

Nola jartzen zaio amaiera bat hasiera bati?

Txakur Gorria Sormen Kolektiboa

Azalpena

Eako Poesia Egunen ekimenez, Metrokoadroka sormen laborategiak 14 sortzaile elkartu zuen astebetez Ean. Guztiak kolektiboaren proiektuetan inoiz lan egindakoak, baina era berean bakoitza bere nortasun, imajinario eta pasioekin. Elkarlanean oinarritutako prozesu bat abiatu zuten astebetez, eta egun horietako emaitzarekin antzezlan osatu zuten Zanbuia! izeneko emanaldia.

Zanbuia! emanaldia behin bakarrik egin zen, Eako kale eta txokoetan, 2018ko uztailaren 14an.

Hauek izan ziren sortzaileak:

Ainhoa Alberdi

Maite Aizpurua

Javier Barandiaran

Idoia Beratarbide

Corine Cella

Amaia Corral

Iraia Elias

Ander Fernandez

Oier Guillan

Idoia Hernandez "Hatxe"

Unai Lopez de Armentia

Óscar Manso

Joseba Roldan

Marina Suarez Ortiz de Zarate

Peru Galbete eta Aritz Ormazabalek egin zuten emanaldia osorik jasotzen duen bideoa.

Argazkiak Ikorkotxek atera zituen.

Azaleko ilustrazioa: Idoia Beratarbide Arrieta

Gidoia eta argazkiak



1.1.

Non hasten da amaiera bat? Non amaitu hasiera bat?
Zer gertatuko litzateke amaiera oro zerbaiten hasiera balitz, eta hasiera oro amaiera bat.
Historia erabaki bat da, eta memoria, ez da soilik norberarena.
Pertsona bat hiltzen denean bere oroitzapenek ihes egiten dute,
beste norbaitengan gorpuzteko.

Oroitzapen batzuek ez dute desagertu nahi,
isilean geratutako oroitzapenek,
justizia eske irauten dutenek.

Historia eta isiltasunaren artean ezkututzen dira desagertu nahi ez duten oroitzapenak:
iragana eta orainaren artean,
kafea eta esnearen artean,
ying eta yang artean,
odola eta zainaren artean,
euforia eta etsipenaren artean
eromena eta zentzutasunaren artean,
sua eta izotzaren artean
xaboia eta xanpuaren artean
eguzki krema, eta krema-lleraren artean.

Gorputza eta pentsamenduaren artean ezkututzen dira desagertu nahi ez duten oroitzapenak,
errealitatea eta fikzioaren artean,
si eta doren artean,

galderen eta erantzunen artean,
aldarrien eta zalantzen artean,
oraina eta geroaren artean,
1. orrialdea eta 2. orrialdearen artean.

Baina zer gertatuko litzateke isileko oroitzapen hauek norbaitengan gorpuztuko balira,
kaleak hartuko balituzkete urteetan pilatutako sekretuek.
Badira desagertzeari uko egiten dioten oroitzapenak.
Beren lekua bilatzen dutenak bizidunen agendetan.

Non hasi, non amaitzen da pertsona baten bizitza?
Non hasi, non amaitzen da herri bat?
Nork imajinatu ninduen gu, nork oroituko gaitu?





1.2.

Denbora ulertzen ez dugun itsaso bat da
eta madarikatzen ditugu kronometroak,
errekei buruzko metafora guztiak,
madarikatzen ditugu alegoria budistak eta metafora nudistak,
Paulo Coelhoen liburuak,
Naturako dendak,
eta gosearekin amaitzeko musika jaialdiak.

Non hasi, non amaitzen da oroitzapen bat?
Non hasi, non amaitzen da pertsona bat?
Ez gara jainkoaz ari, ez horixe,
ezta errenkarnazioaz ere:
noizbait norbaitek imajinatu gintuen gu,
noizbait okatu gintuzten mundura,
norbaitek oroituko gaitu desagertzean,
oroitzen gaituen oro desagertzen den arte.

Batzuetan, izenak besterik ez dira geratuko,
liburuak,
kale izenak,
zuri beltzeko argazkiak,
itsas ertzeko arrokei jarritako izenak,
kaleen izenak eta itsas ertzeko arrokenak,
tokadiskosik gabeko biniloak,
pipiak jandako altzairuak,
bigarren eskuko arropak,
amonaren ezkontzako soinekoak,
egurrezko muletak,
manikiak,
pasatako greba orokorretako pankartak,
aldarriz josiriko pegatina ahaztuak.

Herri baten memoria pertsona bakoitzaren puzzle zatiekin osatzen da,
memoria ulertzen ez dugun itsaso bat da,
horregatik esaten dugu..
ZANBUIA!



2.1.

Noizbait hemen gauden guztiok, guzti-guztiok, hilik egongo gara. Iritsiko da une bat, auskalo noiz, urte asko barru espero dezagun, zeinean hemen gaudenen arteko gazteena ere hiltorian egongo den. Ordurako beste guztiok hilik egongo gara. Hauxe da, orain eta hemen gauden guztiok elkarrekin gure bizitzetan biziko dugun momentu bakarra. Elkarrekin. Ez da besterik egongo.

Eta iritsiko da une bat zeinean une ere hau ahanzturaren itsasoak irentsiko duen. Gaur eta hemen gaudenen arteko azkenak, akaso gazteenak, hiltorian denean une hau ekarriko du akordura, eta konturatuko da une hau konpartitu dugun guztiok ez gaudela jada. Mundu osoan ez dela egongo une horretan esaldi hau konpartitu ahal izango duen inor: "Gogoratzen egun hura, Eako Poesia Egunetan...?". Eta une horretan, pertsona horrek, lauso bada ere, hemen gaudenon aurpegiak ekarriko ditu gogora, eta akaso, agian, auskalo, hitz bat etorriko zaio ezpainetara: ZANBUIA!











2.2.

Bitan banatua egon den herria da Ea,
errekak erdibitua, parte bat jauntxo batena eta bestea bestearena,
bakoitza bere elizarekin.

Lurra eta itsasoaren arteko tentsioan eraikitako herria ere bada Ea:
itsasoaren oldarraldien beldur bizi dena,
uholdeen izu,

marea biziek herriko etxeetako erraiak itoko dituzten beldurrez.
Tentsiorik, kontraesanik, erdibitu gabeko iruditeriarik gabe, ez legoke Earik.

Beraz, Ea bada hori ere:

zauria norbere nortasunaren parte egiteko bulkada,
itsasoa eta lehorra,
emakumeak eta gizonak,

itsas gizonen emazteak eta itsas gizonen emazteen senarrak ziren gizonak.

Herriko lagunek kontatzen dutenez itsas gizonek kanpoan ematen zuten urteko parterik handiena, eta
bien artean emakumeek osatutako herri bat zen Ea.

Nolako bizitza zer bertakoa?

Zeintzuk ziren emakume haien penak

zalantzak,

sekretuak,

desioak,

pentsamenduak,

aitortzak,

beldurrak?

Haien irudimena isilean, gauero,

egunero, uneoro, segunduro.

Nolakoa da sexua urtearen parterik handiena itsasoan pasa duen gizon batekin?

Nolakoa da sexua urtearen parterik handiena herrian pasa duen emakume batekin?

Ez dakigu emakume haien sekretu bakar bat ere,

haien pentsamendu bakar bat ere ez dugu oinordetzan jaso,

haien aitortza sekretuak hil ziren, entzun zituen azken pertsonarekin.



Erreka batek erdibitu ditu gizonezkoen eta emakumezkoen arteko denbora eta itsasoak estali ditu, halaber, gizonezko eta emakumezko banaketa horretatik at sentitu ziren ez-emakumeak eta ez-gizonak: isiltasunaren azpiko isiltasuna.

Haiek guztiek, itsas gizonek eta haien emazteek eta ez bata ez bestea ez zirenek, imajinatuko al zuten gaur hemen gu egongo ginenik haien sekretuak, haien pentsamenduak, haien desioak kontuan hartzen?

Isiltasuna ulertzen ez dugun itsaso bat da, horregatik egiten dugu oihu...
ZANBUIA!











3.1.

Edertasun momentu bat izoztu nahi genuke, baina zilegi da edertasuna?
Une honetan ez gara torturatuak izaten ari baina
seguru une honetan bertan
munduko lekuren batean norbait torturatua izaten ari dela.

Ez gara itsasoan itotzen ari baina
seguru une honetan bertan
munduko lekuren batean
norbait itotzen ari dela.

Samina ekarri dugu gogora bizitzaren memoria aldarrikatzeko baina
zilegi da poesia, elkertasuna, edertasuna?

Momentu hau izoztu nahi genuke,
izotza bizitzeko kolpeen ubeldurak lasaitzeko eta izotza bizita ospatzeko:
gin-tonic bat, ehunka, milaka, miloika gin-tonic!

Zilegi da edertasuna? Zilegi da umorea?
Zer gertatuko litzateke amaierarik ez balego?
Zer gertatuko litzateke gezurra balitz gauzek amaiera dutela?
Zilegi da edertasuna? Zilegi da umorea?

Nolakoa litzateke gure bizitza gauzek amaierarik ez balute?
Nolakoa litzateke gure bizitza munduko futbol ligak amaierarik ez balu,
Ciudadanos,
kafea,
Negu Gorriak,
orgasmoak amaierarik ez balu,
txokolatzeko bizkotxoak,
kaka egiteko gogoa,
hil da jainkoa kanta,
depilazioari buruzko iragarki bat.

Zer gertatuko litzateke, nolakoa litzateke mundua, Goenkale sekula amaituko ez balitz?
GORA HERIOTZA!
GORA HERIOTZA!!!



3.

Guk ez dugu hil nahi, baina hilko garela jakingo ez bagenu,
ez genuke telebista itzaliko,
ez genuke drogarik hartuko edo droga guztiak hartuko genituzke,
ez genuke txortan egingo azkeneko aldia balitz bezala edo lehenengo aldia balitz bezala edo berrogeita
bi milagarren aldia balitz bezala,
ez genuke manifestaziorik antolatuko,
ez genuke Eako Poesia Egunik biziko.

Heriotza ulertzen ez dugun itsaso bat da,
horregatik egiten dugu oihu...
ZANBUIA!!!





3.3.

Momentu hau izoztu nahi genuke.

Izotza bizitzako kolpeen mina lasaitzeko eta

izotza bizitza ospatzeko:

gin-tonic bat, ehunka gin-tonic, mila miloika gin-tonic.

Artelan oro da gauzei amaiera bat emateko ahalegina,

artelan orok nahi luke izan ahanzturarentzat erremedioa,

isildutako oroitzapenek batzuek uko egiten diote desagertzeari.

Batzuetan, izenak besterik ez dira geratuko haiengandik.

Leku izenak agian,

Eako itsasertzeko haitzenak bezala, herritarrek jarriak:

Atekarri

Kaiarrixa

Zurtzilogente

Muskixa

Aitxhandi

Hezut toki

Lapatxak

Salbarri

Bixerreka

Eako itsasertzeko arrokek

dagoeneko ez dauden herritarren oroitzapenak

gordeko balituzte bezala;

jendeak misterio aire batekin

ahoskatuko ditu leku izenok..



3.4.

Non hasi, non amaitzen da pertsona bat?
Non hasi, non amaitzen da oroitzapen bat?

Agian ezerk ez du ez hasierarik, ez amaierarik.
Memoriak eztanda egiten du denboran,
une baten oihartzuna noraino jakin gabe luzatuz,
haur batek uretara salto egin eta,
une hori izoztu nahian,
ZANBUIA! oihukatzen duenean bezala.



Zanbuia!-ren gaineko kronikak

Zanbuia! emanaldiak oihartzun zabala izan zuen, eta behin bakarrik egin bazen ere arrastoa utzi zuen hainbat artikulu eta aipamenetan. Jarraian topatuko dituzue komunikabideetatik jasotako batzuk.

ZANBUIA!!

Galder Perez, 7K, 2018/VII/22

Aurreko asteburuan Ean izan ginen. Poesia Egunak ziren, urtero legez, Bizkaiko herri txiki ederrean. Hamaika ikuskizun, errezitaldi, kontzertu eta hitzaldi entzun eta ikusteko aukera izan genuen. Eta Poesia Egunetarako beren-beregi prestatu zuen Metrokoadroka Sormen Kolektiboak "Zanbuia!" izeneko kalerako antzezlan. Behin baino ez antzezteko sortutako lan paregabea. Hantxe bertan astebetean egindako sormen lan kolektibo biziaren emaitza. Behin bakarrik gertatzen den bizitza bezala, egun bakar batean antzezteko sormena, errepikaezina. Esan ziguten Eako umeek uretara botatzeko «zanbuia!» oihu egiten dutela. Lizentzia poetikoa, bizitzaren gezurrak bezalako poesia. Esaten omen da, bai, Zumaia inguruan. Orain guk ere esaten dugu «zanbuia!» uretara jausi egin aurretik. Eta kontziente izango gara uretara jauzi egiten ari garela. Airean hegan eta itsasora. Dena eta guztiaren sorleku den toki horretara, ezer eta guztia den airetik etorria.

Horrela hasi zen ikuskizuna, itsasotik etorritako pertsonaiekin. Harearen gaineko piano hots eta poesiaren hitzekin nahastu ziren lehenengo pausoak. Herrian zehar eramán gintuzten, ondoren. Frontoian gure existentziaren ezdeusaz jabetu ginen. Erraz ezabatu gaitzakete, garen hori ezertan geratu arte, betiko desagertu arte, gure arrasto txikiren bat uzteko esperantzan. Errekan, gure izatearen alaitasunek eta minek busti gintuzten, gure egunak diren etengabeko zubiak gurutzatzen ditugarrik. Eta itsasora buelta, berriz ere joan eta desagertzeko, oihu alai eta bihurria botaz, zanbuia!

Dena hasi eta bukatzen dela jakin badakigu ere, errazegi ahazten dugu hain agerikoa den egia. Ezinbestekoa zaigu, hortaz, tarteka gure existentzia finituaren kontzientzia edukitzea edo, bestela, norbaitek belarrira esatea. Bukatzea berriz hastea ere badelako, norbanakoarentzat zein kolektiboarentzat. Berriz ere hasteko ona izan daiteke garbiketa lana; bihotz, arima eta gorputzen purgazioa. Horretarako egiten dugu zanbuia!, itsasoko urek gure azala birmargotzeko eta pizteko. Tresneria bagina reset esango genioke, baina izaki bihurriak garenez, zanbuia!

Ez dakigu kale antzerkiak betiko agur esateko intentziorik ote zuen. Pena litzateke. Ez dakigu izozketaren ondorengo etenaldia ote den, berriz ere hasteko, gero eta gehiago hazteko. Jakin badakiguna da, Ibai Atutxaren hitzak berrinterpretatuz, immolazio kolektiboa izan zela ikuskizun hura. Urak bustitako garbiketa ariketa. Ur gardenaren korranteetan galdu eta ikusteko ariketa kolektiboa. Hunkitu ginen, barre egin genuen eta, tarteka, baita sufritu ere. Bizitzan bezala. Bakarra den bizitzan bezala. Espero dezagun ordutik aurrera egiten dugun legez, uretarako salto bakoitzarekin zanbuia! oihukatzen jarraitzea, kontziente ala inkontziente, baina oihu. Geure buruari bizirik gaudela gogorarazi. Ozen egingo dugu garrasi gainera, lagunen eskutik helduta, bakarrik ez gaudela sentitzeko eta dastatzeko. Guztiok antzekoa behar dugula azpimarratzeko, poesia eta mina, barrea eta poesia.

Historia erabaki bat da

Itziar Ugarte, Jakin 227-228, 2018ko negua, 2018-10-26

Bigarren argazkia. Ea. Poesia egunak. Eguzkia laino artetik banator banao. Ibai Atutxak ireki du eguneko plana 'Immolazio intimoak. Bestelako lurralde, intimitate eta euskal herritarrak egungo literaturan' hitzaldiarekin. Moilan errezitaldia eskaini dute atzetik Martin Bidaurrek eta Juanjo Olasagarrek.

Eta argazkia Zambuia!-k utzi du. Metrokoadroka sormen laborategiko kideek herrian bertan eman dute aurreko astea emanaldia prestatzen. Hamalau lagun dira denera: Ainhoa Alberdi, Maite Aizpurua, Javier Barandiaran, Idoia Beratarbide, Corine Cella, Amaia Corral, Iraia Elias, Ander Kurius Fernandez, Oier Guillan, Idoia Hernandez Toledo, Unai Lopez de Armentia, Oscar Manso, Joseba Roldan eta Marina Suarez Ortiz de Zarate.

Idoia Hernandez Hatxe piano jotzaileak ireki du parentesiren arteko parentesia. Hasi entzuten pianoaren soinu gardena, eta gehitu Oier Guillanen ahots bakan hori:

Non hasten da amaiera bat? Non amaitu hasiera bat? Zer gertatuko litzateke amaiera hori zerbaiten hasiera balitz, eta hasiera oro amaiera bat? Historia erabaki bat da. Eta memoria ez da soilik norberarena. Pertsona bat hiltzen denean, bere oroitzapenek ihes egiten dute, beste norbaitengan gorpuzteko. Oroitzapen batzuek ez dute desagertu nahi, isilean geratutako oroitzapenek, justizia eske irauten dutenek, historia eta isiltasunaren artean ezkututzen dira, desagertu nahi ez duten oroitzapenek iragan eta orainaren artean bizi dira, kafe eta esnearen artean, yin eta yang artean, odol eta zainaren artean...

Orain ikusi hainbat lagun, banan, binan, itsaso zabaletik hondartzan lehorreratzen. Pelikuletan bezala, baina haragi-haragitan, zure aurrean, goitik behera bustita, garai bateko herritarrak balira bezala herrira itzultzen. Irudikatu, gero, pertsona horiek kaleak hartzen, hildakoen keraz eta bizi-bizirik dagoenaren indarraz dantza egiten, garrasi egiten, gorputza zabaltzen eta zintzilik jartzen, bizirik eta begira daudenak zirikatzen eta desafiatzen. Hotzikarari irribarre zabala.

Existenziaren oinatzaz ari dira. Eta haiei begira, zer da artea denboran arrastoa uzteko modurik ederrena ez bada. Guillanen ahotik itxiera:

Zer gertatuko litzateke amaierarik ez balego? Zer gertatuko litzateke gezurra balitz amaiera dutela gauzek? Zilegi da edertasuna? Zilegi da umorea? Nolakoa litzateke gure bizitza gauzek amaierarik ez balute? Nolakoa litzateke gure bizitza munduko futbol ligak amaierarik ez balu? Ciudadanos, kafea, Negu Gorriak, orgasmoak amaierarik ez balu?

Uda ez litzatekeela uda amaierarik ez balu. Bizitza ospatzeaz ere ari ziren, beraz. Ez da berdina, ezin da, baina inork nahiko balu, sarean du osorik ikusgai.

(...) Artikulua osorik Jakin aldizkarian: <https://www.jakin.eus/aldizkaria/artikulua/kultura/4213>

ZANBUIA

Agus Perez, Berria, 2018-VII-17

Urtero legez, herri bat poesia oparitu digu Eak egunotan, eta Zanbuia! lanarekin ospatu du bere 10. urtemuga Metrokoadroka Sormen-Kolektiboak, bertako txoko eta oroitzapenei esangura poetikoa emanaz.

Herriko hondartzaren erdian zegoen teklatuak esan digu haren inguruan hasiko zela emanaldia, eta piano melodia ederra bukatu denean magiaz bezala irten dira itsasotik sentikari honetako pertsonaiak, oinez eta pauso lasaituan, banaka, binaka, hironaka. Haietariko lehena sare batean bilduta etorri da, sarearen arrasto luzea haren atzetik utzita, eta guztietan azkenak salabardo bati eragiten zion, tximeletak harrapatu nahiko balitu bezala. Hasierako eszena ezin politago horretan Felliniren pelikula batean bizi izatearen sentsazioa eduki dugu, Amarcord filmeko pertsonaien artean egotearena agian, eta azken morroi hark gogoratu digu memoria duten leku guztietan dagoela herriko xeblearen figura berezia.

Irudi plastiko harekin batera, Oier Guillanek mikrofonotik esandako hitzak etorri dira, betiere musika ederrak lagunduta eta gu guztiongan eragina duten hainbat kontu aletuta. Hasierako eta amaierako pasarteetan badirudi gai eternalagoei ekin diola kolektiboki landutako testuak, sublimea dena eta egunez eguneko gaiak nahita elkartzuz eta elkarren kontrastean jarriz. Ordea, hondartzako hasieraren eta portuko uretan izandako amaieraren artean —frontoian, etxeetako leihoetan, zubietan eta erreko uretan izandako eszena eder, harrigarri eta malenkoniatsuetan— hitzek eta ekintzek lotura handiagoa eduki dute herriko memoriarekin.

Oroimenaren kontu horretan esangura berezia hartu du emakumeen eta gizonen bizimoduari egindako aipamen subliminalak —dena poetikoa, dena jaso, dena urrun eramana—, eta agian dikotomia horretan azaleratu da hobekien emanaldiaren funtsa, elementuen arteko kontrasteen eta haien elkarbizitzaren inguruan eratu dena: itsasoa eta herria, emakumeak eta gizonak, oraina eta iragana, orain hemen batu garenok eta etorkizunean zuen artean egongo ez garenok, bizi izan duguna eta azken unean gogoratuko duguna. Hondartzako olatuen joan-etorri etengabea gogoan.

Eako Poesia Egunetan 2012an Eguzki-jai jauregian izandako emanaldi hura —Munduan beste deitu zen, eta orduko hartan Labea izena hartu zuen taldeak— oraindik burutik kendu ezinik gabiltzala etorri da Zanbuia! hau, kolektiboko kideak herrian bost egunez bizi ondoren, zerotik hasi eta sormen eta prestaketa lanak egiteko. Orduko hura bezala, emanaldi bakar eta errepikaezina izango da, baina Ean egon garenok bihotzean gordeko dugu harribitxi hau ikusi izanaren pribilegioa.

Godot-o dut talde lana

Oier Guillan, GARA, 2018-XII-08

Godot-o dut talde lana. Ekarriko didanaren zain nagoelako beti, inoiz oso ondo jakin gabe zer izango den. Gorrotatu izan ditut prozesu kolektiboak, etxeko sofa orduak akabatzen dizkidaten bilera infinituegiak, loop amaiezin batean bezala luzatzen diren eztabaidak. Baina bestetik, prozesu kolektiboetan murgiltzean hainbeste ikasi dut nire mugez, egoaz, norberaren ahalmen urriak taldean anplifikatzeaz, ondokoen ahalmenaren frontoi izatearen magiaz! Maite dudalako gorroto dut talde lana, beraz. Eta horregatik akaso, talde lanera bueltatzeko gogoia edukitzearren naiz idazle, idazteak dakarren sormen bakardadeaz ihes egiteko berriz antzezle.

Lehen lerro hauek idatzi eta azkenaldian bizi izan ditudan bi sormen prozesu etorri zaizkit berehala akordura: “Miss Karaoke” eta “Zanbuia!” antzezlanenak. Hain izan da haietan aberasgarria bizipena, arriskatua bidea, hain erakargarriak bertigoa, laguntasuna eta esperimentazio basa, berriro biziko nituzkeela blokeoak, sormen prozesuko loezak, berriro erreko nituzkeela zigarro guztiak eta edango kafe denak.

«Miss Karaoke»

Garaion Sorgingunean nago lerro hauek idazteko unean. Bihar, azaroak 25, emanaldia eskaini behar dugu bertako lastotegia antzoki bilakaturik. Leku berezia da: naturaren erdian, era ezberdineko ikastaro eta proiektu ugari egiten dituzte. Une honetan zumitzarekin eskulturak egiten dabil talde oso abegikor bat, eta Euskal Herriko emakume artisten lanak bisibilizatzen laguntzeko erakusketa kolektibo bat dute ikusgai. Bertan egon ginen gu ere duela ia bi urte “Miss Karaoke” sortzeko lehen egonaldia egiten. Bost lagun astebetetz mendian galdua, lehenbiziko aldiz elkarrekin lanean.

Guztia da prozesua. Metrokoadroka kolektiboan antzerkia ulertzeko dugun moduan guztia da sorkuntza, guztia izan daiteke lanerako materiala. Garaionen egon ginen bitartean bizitzari buruz hitz egin genuen, generoari buruz, gorputzei buruz. Proiektuarekiko bakoitzak zituen kezak eta beldurrak konpartitu genituen, proiektu honetarako baliagarria izan zitekeen konplizitate bat sortuz. Lankideak banaka mimatzea eta zaintzea jarrera bat izatez gain, prozesuaren parte bilakatzen da: Marina Suarez Ortiz de Zarate, Unai Lopez de Armentia, Iñaki Ziarrusta eta Jabitxin Fernandez dagoeneko ez dira fitxa artistikoan azaltzen diren izen hutsak.

Antzezlanak kanpotik gidatzea tokatzen zaidanean, izan idazle edo zuzendari modura, une oro nago adi. Batzuetan materialak sortzeko egiten ditugun inprobisazio ariketak bezain garrantzitsuak dira haien osteko atsedenaldiak, une horietan sortzen direlako sarri gidoi baterako garrantzitsuak izan daitezkeen ideiak eta esaldiak.

Testua idazterakoan testuari ihes. Sormen prozesu kolektibo batean garrantzitsuena ez da alde aurretik idatzitako testu itxi bat edukitzea. Kontrara, ihes egiten diot literaturari, taldekideen sormena enkorsetatu dezaketen patroiei. Idazle naizen heinean antzezlaneko hitzek kalitate bat izatea dut xede, baina horrek ezin du taldearen sormena ito. Oreka zaila da, baina ez ezinezkoa. Obra baten autorea benetan taldea baldin bada, idazleak taldekide bat gehiago behar du izan. Idazlearen funtzioa obra

batek behar dituen elementuak detektatzea eta poetikoki ordenatzea da: izan hitzak, gorputz mugimenduak ala taldekideen artean off the record sortutako elkarrizketak.

Gidoi itxi bat baino gehiago poemak, testu solteak, mugimendu fisikoetarako ideiak erabili ohi ditugu aktore lanerako oinarri gisa. Hortik abiatuta aktoreei zein lan teknikoagoetan (jantziak, argiak) dabiltzanei okurrizten zaizkien ideia berriak hartu, ezagutu, errespetatu eta txertatu idazketa orokorrean. Iritsi behar da une bat zeinean taldeko edonork dakien nondik datorren eszena bakoitza, halako edo bestelako esaldia noiz etorri zen. Pixkanaka taldekide bakoitzak obra habitatzen du, bere burua islatuta ikusten du obraren idazketa definitiboan.

Formularik gabe, aldiro formula topatu. Sormen prozesu kolektiboak era askotakoak izan daitezke, segur aski proiektu bakoitzeko formula ezberdin bat asmatzen da. "Miss Karaoke" -k berea ekarri zuen: batzuetan talde lanarentzat garrantzitsua da espezializazioa, rol banaketa, norbera gustura dagoen lekua topatzea eta sakontzea. Sormen prozesu kolektibo batean lanak eta ofizioak banatu daitezke, energia motak taldearen barruan, oholza gainean zein oholzatik at.

Bibrazioa. Garaionen egon ginen bitartean beste kolektibokide batzuk gonbidatu genituen probokazio kreatiboak egitera. Idoia Beratarbide eta Joseba Roldan etorri ziren, kasu, eta goiz oso bat iraun zuen performance oso eder bat eginarazi ziguten. Garaionen inguru ederrean aritu ginen oihukatzen, marrazten, idazten, bakardadean ibiltzen... ostera zuzendaritza lanetan parez pare izan dudana Javi Barandiaranek dioen bezala, "bibrazioa" sortzea da xedea, talde osoak obraren gaiaren inguruan konpartitzen duen giroan murgiltzea, imajinario komun batean, talde honek soilik biziko duen esperientzia intimo eta era berean konpartitu batean sakonduz.

«Zanbuia!»

Naturatik naturara, azken urtean poz handia eman didan beste proiektu bat: "Zanbuia!", Eako Poesia Egunen gonbidapena onartuta herrian bertan astebeteko egonaldian ia hutsetik sortu genuena. Hamalau lagun egon ginen lanean, aspaldi zen ez nuela hain prozesu asanblearioa bizitzen, esango nuke gutxitan egon naizela nire antzerkiari buruzko idealetik hain gertu. Emanaldia behin bakarrik egiteko izanik akaso askeagoak izan ginen, ez genuen merkatuak normalean inposatzen dituen presio itogarriekiko menpekotasunik.

Polaroid poetikoak. Horrela deitzen diogu azken antzezlanetan jorratu izan dugun nolabaiteko sistemari. Gauza da kontatu nahi den horren inguruan irudi fisiko poetikoak sortzea. Argazki poetiko estatikoak, gorputz metaforikoak: intuizioari hitz egiten uztea dute xede, funtsean. Ahalik eta irudi gehien, ahalik eta askeen, hitzetik ahalik eta urrunen. Horrelako irudiak sortzen jardun genuen aste osoan hamalauok, herritarren udako bakea tarteka asaldatur, batzuen harridurarako eta besteen gozamenerako.

Narratorik gabe, poetika baten bila. Obra sortzeko Eako hainbat lagun elkarrizketatu genituen herriko iraganaz, emakumeen bizitzaz, memoria kolektiboan geratutako pertsonen oroimenaz. "Zanbuia!" ez zen antzerki narratiboa izan, baina bazegoen nolabaiteko kontakizun bat, bertako jendeak berehala errekonozitu zuena. «Esperimentatu» hitza gustuko ez dudana arren konbentzitu nago posiblea dela, arriskatu daitekeela, erokeriak egin daitezkeela eta hala ere komunikazio prozesua osatu publikoarekin. Antzerki komertzialarena mito faltsu bat da, arte eszenikoei loturiko merkatuak ideologikoki inposatzen duena modu interesatuan. Beti gabiltza dramaturgia berriak aldarrikatzen:

interesatzen zait publikoak benetan orain eta hemen gertatzen ari den zerbait bizitzen ari den sentazioa edukitzea. Aktorea ikustea, pertsonaiaren azpitik baino gehiago, gainerik. Noski, teatroa jokoa da, teatro mota asko egon daiteke, aniztasunaren alde nago ni. Horrexegatik beragatik, euskal teatroa anitza izango bada beharko du baita ere probokazioa, akzio-antzerkia, performancea, beharko du sortzaileek arriskuak hartzerakoan lasaitasunez porrot egiteko marjina.

Orain eta hemen mina dagoen puntua topatzea eta bertatik edertasuna transmititzen asmatzea da niretzat esperimentazioa, eta ez pose bat, ez jarrera elitista bat. Teatroak ez du zertan izan soilik ulergarria, narratiboa, politikoki mastikatua (politikoki “jatorra” denetan ere). Zailena norbere beldurrekin ez konformatzea da. Performancearen ideia egongo da akaso sarriegi, bai, artearen ingurumari gutxi-asko estuei loturik, baina performancea museoetatik ateratzearekin egiten dut nik amets, izurrite baten moduko euskal-teatro-performatibo-bufoi kutsakor bat erdiestearekin.

Sukar batean idatzi ditut lerrook, baina ezin guztia jarri: “Zauri Bolodia”-ri utzi beharko diot hurrengorako zerbait. Amaierako puntu gisa aipatuko nuke norberaren mugak opari bat direla: hortxe azalduko zaizkizu sormenak behar dituen mina, aurkikuntza, erronka. Eta horrelaxe amaitzen dut testu hau, Garaioneko paraje ederrei begira, lagunekin kableak luzatzen, dimmer-ak konektatzen, fokuei lanpara hautsiak aldatzen gabiltzan honetan. Eskuak zikintzen, langileak garelako beste ezeren gainerik.

